

EUSKALTZAINDIAREN ADIERAZPENA

EUROPAR BATASUNA

Euskaltzaindiak, Bilbon, 1999ko maiatzaren 28an, egindako osoko Batzar Agiritik jaso:

“Europar Batasuna.

Gainerako erakunde politikoen izenentzat Euskaltzaindiak proposamenak egin dituen bezala, Europan sortzen ari den batasuna izendatzeko orduan dagoen anabasari aurre egin beharra ikusi du Onomastika batzordeak. Aurkezten diren aukerak bi dira: *Europako Batasuna* eta *Europar Batasuna*. Euskara Batuko batzordearen iritzia erdibitua ageri omen da: lau kide *europar*-en alde, hiru *Europako*-ren alde. Zenbait euskaltzainek beren iritzia eman dute eta, azkenean, botoetara jo da. Hona hemen emaitza: hamar euskaltzain *Europar Batasuna*-ren alde eta zazpi, *Europako Batasuna*-ren alde. Boto zuri bat ere izan da. Horrenbestez, *Europar Batasuna* deitura onartu da.”